

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Enpresa Baliabideen Plangintzak antolakuntzen esparru nagusiak batu eta kudeatzen dituzte, hala nola, ekoizpen, banaketa, finantzak edo giza baliabideak. Gure enpresa ere ez da gutxiago izango eta behar diren funtsezko baliabideak enpresako kideen artean banatuko ditugu, horrela bakoitzak ere zeregina izango du eta talde bat bezala arituko gara lanean. Guk inolako suertea izan dugu, izan ere enpresako kide bakoitza espezializatua da bere lanean eta horrela lanari edo enpresari produktibitate handiago ateratzeko aukera izango dugu.

Guztira bost kide gara, eta esan bezala lanak espezializazioaren arabera sailkatuta daude. Alde batetik Maren Treviñok, Marketing eta Publizitate arloan espezializatua, Internetaren gidari izango dela esan dezakegu, hau da, enpresak izango duen webgunea berak eramango du eta bera arituko da lan horietan, eta horrez gain, gaur egun horrenbesteko inportantzia duten sare sozialak ere berak eramango ditu. Horrez gain, gure enpresak ere badu ideia sare sozialetan "influencer" ezagutzen direnekin komunikatzeko eta tratu bat egiteko, ondorioz lan horietan ere Maren arituko baita.

Beste alde batetik, Iker Simon diseinatzailea dago, eta honek bere espezializazioarekin bat datorrena egingo du, hau da, hasiera batean boligrafoak izango direnak, baino espero dugu aurrerago material gehiago izatea, horiek diseinatuko ditu. Honek ez du esan nahi berak bakarrik egingo duela diseinua gu kontuak izan gabe, baizik eta berak bere lana egingo du, baina modelo diseinatuz, eta ondoren bazkide guztiek aukeraketa bat egingo dugu.

Segidan Olatz Cintok esan dezakegu Ikerrekin batera egingo duela lana, hau da, Ikerrek alde batetik produktua diseinatuko du, eta erabakia hartu ostean, Olatz produktu hori sortzen hasiko da, eta hobeto esanda, produktu hori produzitzen. Malen Zabala aldiz, enpresako administrazioako kontuak kudeatuko ditu, hau da, enpresako gastu zein irabazi guztiak berak eramango ditu, eta enpresak galerak izanez gero, bera izan beharko da lehendabizikoa irtenbide batzuk bilatzen, izan ere bertan baita espezializatua.

Azkenik Leire Gonzalez izango da gure bezeroekin harreman gehien edo harreman zuzena izango duena, izan ere bera izango da gure denda fisikoan lanean arituko dena. Bere helburua bezeroekin ahalik eta harreman onena sortzea izango da.

Plangintza honekin hasiko baitugu gure proiektu berria, eta espero bezain hobe irteten baldin bada, kide berri gehiagoren bila hasiko gara. Enpresa txiki eta ezezagun bat izatetik, handi eta ezagun bat izatera pasa nahi dugu. Enpresako kideen lanak eta kontuak albo batera utziz, baliabide fisikoak ere beharrezkoak dira proiektu hau aurrera ateratzeko; lokala, makineria, materiala... Lehenik eta behin lokalaz arduratuko gara, izan ere, gure asmoa bi lokal alkilatzea izango da. Bat hiriaren erdigunean kokatuta egotea gustatuko litzaiguke eta hura gure

denda fisikoa izango da, bertan izango da gure materialaren salmenta. Bestearen kokalekuak aldiz ez du horrenbesteko garrantziarik, izan ere, bertan gure produktuak ekoiztuko direlako, hau da, makineriaren kokalekua izango baita. Horren gastuak benetan handiak direla kontuan izanda, gure bankuarekin hitz egingo dugu eta mailegu bat eskatuko dugu, urte batzuk geroago bueltatuko duguna. Horrez gain dirua gordetzeko kaxa, ordenagailua... beste hainbat gauza behar izango ditugu, eta gastu guzti horiek gure poltsikotik joango dira.

Enpresako bazkideak kontziente gara hasiera batean gure irabaziak ez direla benetan handiak izango, baina arazo hori guk hasiera batetik ikusi genuen eta aurrera jarraitzea erabakia hartu genuen. Urte batzuk geroago, enpresa handitzen denean eta gure soldata ere bai, une horretan emango diogu eskerrak hartutako erabakiari.